

### BALORAZIOA



*Interesa: Turistikoa eta didaktikoa.*

*Kategoria: Eskualde mailakoa.*

*Kontserbazioa: Ona.*

*Antzeko beste gune batzuk: Villano lurmuturra (Gorliz), Izaro (Bermeo) eta San Nikolas (Lekeitio).*

*Irispidea: Bermeo-Bakio kostako errepidea segitu ongi adierazita dagoen bidegurutzeraino.*



### VALORACION

Interés: Turístico y didáctico.

Categoría: Regional.

Conservación: Buena.

Otros puntos semejantes: Isla de Villano (Cabo Villano), Izaro (Bermeo) y San Nicolás (Lekeitio).

Accesos: Por la carretera costera de Bermeo-Bakio, existiendo una desviación bien señalizada.






Gaztelugatxeko Donibane eta Aketxeko harkaitza bi irlatxo dira, kostatik hurbil daudenak. Berez lahorretik bereizita zeuden baina lehenengorako irispide artifizial bat egin da. Konplexu Urgoniarreko arrezife-karri masiboa, kolore ilunekoa eta errudista nahiz koral-fosil ugariak da formazio horien osagaia. Gaztelugatxeko harkaitzean material hauek Supraurgoniarreko marga ilun, marga beltz eta hareharrietara iragaten dira. Litologia biak biziki zartatuta daude, kaltzitazko beta ugari erakutsiz. Badaiteke harkaitz biak failaren batek kostatik banatuak izatea.

Bi modutara azaldu nahi izan da irlatxo bi hauen sorrera. a) Hauen osagai diren kararizko materialak kostarekin paraleloa den eta Bakioraino segi daitekeen barra batenak lirateke. Ez dago batere argi karari urgoniaren hauen eta Supraurgoniarreko material margatsu eta hareharritsuen arteko ukigunea; segur aski, haustura ugari egon liteke. Faila hauek esplikatuko lukete bi harkaitzen sorrera baina ez kostarekin paraleloa den basa-lerroarena.

Lehen azalpen hau erizpide tektonikoetan oinarritzen da. b) Beste esplikazio-modu bat bada erosio-ekintzaz kostak atzeraka egin duela dioena. Prozesu honetan, material gogorrenak lehenik lurmuturrak eratuko lituzkete, erosioaren eraginez isolatuta geratu arte (ikus Ogoño lurmuturraren azalpena, 17. IGG).

DIAGRAMA-SEGIDA HONETAN  
ADIERAZTEN DA NOLA  
KOSTALDEAREN ATZERAKADAK  
IRLATXOAK SORTZEN DITUEN  
EROSIOA JASATEN DUTEN TARTE  
GOGORRENAK ISOLATUTA  
GERATZEAN



SECUENCIA QUE INDICA LA  
REGRESION DE LA COSTA Y LA  
FORMACION DE ISLOTES AL  
QUEDAR AISLADOS LOS TRAMOS  
MAS RESISTENTES A LA EROSION

Constituyen dos islotes cercanos a la costa y separados de ella; a excepción de San Juan de Gaztelugatxe, en el que se ha realizado un acceso artificial. Están constituidos por calizas arrecifales masivas, pertenecientes al Complejo Urgoniano, con abundantes fósiles de rudistas y corales. En el Peñón de Aketz, estos materiales pasan a margas oscuras, margas negras y areniscas del Supraurgoniano. Ambas litologías están fuertemente fracturadas, debido probablemente a la existencia de una falla.

La formación de estos dos islotes se ha intentado explicar de dos formas: a) Los materiales calizos que los forman corresponden a una barra que aparece paralela a la costa y puede seguirse hasta Bakio. El contacto entre estas calizas del Urgoniano y los materiales margosos y areniscosos del Supraurgoniano no es claro y es probable que existan numerosas fracturas. Estas fallas explicarían la formación de los dos peñones y no la de una línea de bajíos paralela a la costa. Esta es la primera explicación, basada en criterios tectónicos.

b) La otra posibilidad considerada es el retroceso de la costa, debido a la acción erosiva del mar. En este proceso, los materiales más resistentes formarían inicialmente promontorios (ver la explicación del Cabo Ogoño, p.i.g. 17), hasta quedar aislados al progresar la erosión.